

## **EBAZPENA, UPV/EHUko IRAKASLE ETA IKERTZAILEEN ERREKTOREORDEARENA, IRAKASLE ETA IKERTZAILE FUNTZIONARIOEN ETA LAN-KONTRATUDUNEN ERRETIRORAKO NEURRI BEREZIAK ESKATZEKO EPEA LUZATZEN DUENA ETA MURRIZKETEN EZ-OHIKO METATZEA AHALBIDETZEN DUENA**

Irakasle eta ikertzaileen errektoreordearen ebazpen baten bidez, funtzionario eta lan-kontratadun irakasle eta ikertzaileak erretiratzeko neurri bereziak eskatzeko prozedura ezartzen da. Ebazpen hori Euskal Herriko Unibertsitatearen web-helbide instituzionalean argitaratu zen, 2024ko uztailaren 11n, eta aurkezpen-epea ezarri zen, argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko uztailaren 19ra arte. Orobat, gutxi gorabeherako adibide gisa, murrizketa posibleen zenbait taula argitaratu dira, metaketeki dagozkienak barne.

Sindikatuak eskaturik, uztailaren 19an hitzarmenaren jarraipen batzordea bildu da, eta honako hau adostu du:

- Ahalbidetzea, ez-ohiko moduan eta bakar bakarrik 2024ko uztaileko deialdi honetan, lehenago disfrutatu ez diren irakaslanaren murrizketak %125eko maximora arte metatzea, baita ere erretirora 2028ko abuztuaren 31 baino lehen pasatzeko konpromisoa hartzen bada.
- Akordio honen garrantzia kontuan hartuz, zabaltzea eskariak aurkezteko epea 2024ko irailaren 16ra arte, baita eskariak aldatzeko aukera emanez.
- Gogoraraztea sailei akordioak fokua irakaslanaren planifikazio koherentean jartzen duela eta, beraz, bigarren lauhilekoan hartuko liratekeen ordaindutako baimen berezien kasuan, sailek irakaslan antolatu behar dutela irakasleari dagozkion irakats betebeharrak (ikasturtekoen %50 baino pixka bat gehiago) lehenengo lauhilekoan garatu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, Errektoreorde honi eman zaizkion ahalmenak erabiliz,

### **ERABAKI DUT**

**Lehenago.-** Irakasle eta ikertzaileen eta lan-kontratadun langileen erretirorako neurri bereziak eskatzeko epea 2024ko irailaren 16ra arte luzatzea.

**Bigarrena.** Ahalbidetzea, ez-ohiko moduan eta , bakar bakarrik 2024ko uztaileko deialdi honetan, lehenago disfrutatu ez diren irakaslanaren murrizketak %125eko maximora arte metatzea, baita ere erretirora 2028ko abuztuaren 31 baino lehen pasatzeko konpromisoa hartzen bada.

**Hirugarrena.-** Erabaki honen kontra aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke zuzenean Administrazio Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.  
Leioan, sinatzen den egunean.

**Federico Recart Barañano**

IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEA

VICERRECTOR DE PERSONAL DOCENTE E INVESTIGADOR

Errektoreak eskuordetuta, 2021eko urtarrilaren 28ko Ebazpenaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAA)/ Por delegación de la rectora efectuada mediante Resolución de 28 de enero de 2021 (BOPV de fecha 12 de febrero de 2021)